- La vinculación entre las acciones de acción humanitaria y cooperación al desarrollo es débil.
- Existe una gran dispersión en las acciones de acción humanitaria.

El gran objetivo de esta directriz es la publicación de un *Decreto de Ayudas a Proyectos de Acción Humanitaria* que defina los siguientes aspectos:

- Un Marco teórico de referencia para la Acción Humanitaria: Un Objetivo Específico, unas líneas sectoriales y transversales prioritarias, en base a unos principios humanitarios comunes.
- Un sistema de instrumentos de Acción Humanitaria que compagine una herramienta de apoyo a proyectos de emergencia, con otra herramienta de apoyo a estrategias de acción humanitaria en sentido amplio, incluyendo la rehabilitación, la preparación, la mitigación y la prevención. La idea es que de esta manera se puedan vincular orgánicamente lo humanitario con la cooperación para el desarrollo.
- Una línea consolidada de financiación que permita desarrollar las experiencias estratégicas que se quieren poner en marcha.

2.2.1.6.- Directriz VI: Avanzar en el Impacto de la Educación para el Desarrollo sobre la sociedad vasca

La Educación para el Desarrollo – que también incluye la sensibilización y la investigación – es un componente fundamental del Plan Estratégico y Director 2008-2011, a partir de al defensa del principio de corresponsabilidad.

Según dicho principio, la situación de los países empobrecidos es una cuestión que nos afecta a todas y todos, y en la que tenemos una responsabilidad. Las acciones del Norte (consumo, medio ambiente, deslocalización, etc.) impactan en el Sur, y la historia reciente de colonización ha trastocado los procesos de desarrollo de estos países. En definitiva, el desarrollo es un problema global en el todas las personas estamos implicadas.

Por lo tanto, y para acercar al Norte y al Sur, para concienciar sobre las desigualdades provocadas por el actual modelo de desarrollo, es preciso hacer un esfuerzo importante sobre esta componente.

El Plan propone mejorar el impacto de las acciones de educación para el desarrollo en a través de las siguientes líneas:

- Fortalecer institucionalmente a las entidades que se dedican a la educación para el desarrollo, a través de mejorar su capacidad de evaluación y de formación del personal voluntario.
- Establecer espacios de coordinación interinstitucionales, y de éstas con los agentes de cooperación.

- Consolidar una línea de financiación estable y coherente con la relevancia de la Educación para el Desarrollo.

2.2.1.7.- Directriz VII: Incrementar significativamente el presupuesto de cooperación del Gobierno Vasco, con vistas a la consecución del 0,7% en 2012

Aunque la Ley 1/2007 tiene por objeto fundamental regular los aspectos sustantivos de la cooperación para el desarrollo y no los presupuestarios, sí contiene una previsión sobre la dotación económica de la cooperación para el desarrollo en los Presupuestos Generales. La Disposición adicional segunda de esta Ley, titulada *“Los Recursos de la Comunidad Autónoma para la cooperación para el desarrollo”* señala lo siguiente:


“Sin perjuicio de avanzar en el cumplimiento del 0,7% sobre el producto nacional bruto en coordinación con el resto de las administraciones públicas, la Administración de la Comunidad Autónoma vasca incrementará progresivamente las aportaciones destinadas a la cooperación para el desarrollo y a la solidaridad internacional, de forma que constituyan el 0,7% sobre el gasto total consignado en los Presupuestos Generales para el año 2012.”

Debe tenerse en cuenta que hasta la fecha la referencia presupuestaria que se ha venido aplicando ha sido el 0,7% del *presupuesto operativo*, referencia ahora clara y expresamente superada, al referirse la Ley al *gasto total* consignado en los Presupuestos Generales, que como es sabido representa una cantidad significativamente mayor.

En el siguiente cuadro podemos observar una posible evolución de dicho incremento presupuestario para el periodo 2007-2011. Debemos insistir que, salvo para 2007, las cifras para los ejercicios posteriores se presentan a título de mera previsión.

Año	Dotación presupuestaria
2007	39.000.000 €
2008	45.000.000 €
2009	51.000.000 €
2010	57.000.000 €
2011	62.000.000 €

Sumando las previsiones de los próximos años a la trayectoria presupuestaria precedente en cooperación para el desarrollo, podemos observar la evolución total en el siguiente gráfico.



2.3.- PLAN DE SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN

El Plan Operativo está organizado en un Objetivo General que se pretende alcanzar a través del establecimiento de siete directrices u objetivos específicos. Cada una de las directrices persigue a su vez diferentes sub-directrices.

Esta lógica del Plan facilita su seguimiento y la evaluación constante de su evolución. De esta manera, se establecerá una Tabla de Directrices e Indicadores. Por cada directriz y sub-directriz se establecerá al menos un indicador cualitativo y/o cuantitativo, que son el resultado de los compromisos asumidos por el Plan. A partir de esta Tabla, se establecerá un sistema de seguimiento y evaluación del Plan.

En cuanto a los sujetos participantes en la evaluación del Plan, debe tenerse en cuenta lo establecido por la Ley 1/2007, de 22 de febrero, de cooperación para el desarrollo, que prevé la realización de evaluaciones de los diferentes planes por el Gobierno Vasco, a través del Departamento competente, así como la elaboración de informes anuales de evaluación de la cooperación para el desarrollo.

Siguiendo la organización de la cooperación vasca para el desarrollo establecida en el capítulo III de dicha Ley, participarán además en los procesos de evaluación el Consejo Vasco de Cooperación para el Desarrollo y la Comisión Interinstitucional de Cooperación para el Desarrollo.

Adicionalmente, debe tenerse en cuenta el artículo 26 de la Ley, destinado específicamente a la evaluación de la política de cooperación para el desarrollo, sus planes e instrumentos. A tal fin se promoverán cabo durante el periodo de vigencia del Plan y al finalizar el mismo acciones para conocer el impacto de la cooperación pública

vasca en su conjunto y su coordinación y complementariedad en el sistema general de cooperación al desarrollo de cada ámbito geográfico. A tal fin, se prevé elaborar a lo largo del periodo un *mapa de la cooperación pública vasca*, en el conjunto de los países donde ésta tienen presencia a través de las diferentes instituciones que ejecutan política de cooperación para el desarrollo.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA**
Gizarte Gaietako Sailburuordetza
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES**
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Cooperación al Desarrollo

Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Urte Anitzeko Plangintza Estrategikoaren Orientazio Orokorrak, 2008-2011

1.- Hitzaurrea eta dokumentuaren eskema orokorra.

Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legea onartu izana funtsekoa izan da herrialde pobretuekiko lankidetzaz politika sendoa eta kontsolidatua ezartzeko, euskal erakundeetan eta euskal gizartean.

Lege horrek zenbait antolarau, helburu eta lehentasun ezartzen ditu, euskal lankidetzak ongi zehaztutako identitatea izan dezan, pobrezia eta desberdintasunak ezabatzean oinarrituriko eredu batekin, laguntzatik hasi eta epe luzerako garapen-prozesuetaraino.

Gure lankidetzaren ikuspegi estrategikoa zehaztu ez ezik, Legeak egitura instituzional eta sozial berria finkatzen du, kalitatezko lankidetzaz politika parte-hartzailea eta hitzartua ahalbidetzeko, eta, aldi berean, ezarritako helburuekiko koherentea izateko. Hala, Garapenerako Euskal Agentzia sortu beharra aipatzen da (ahalmen tekniko eta estrategikoa handiagoa izango du), eta Garapen Lankidetzarako Euskal Kontseilua eta Garapen Lankidetzarako Erakunde Arteko Batzordea sortzen dira.

Hala, eta lankidetzaz eredu hori eta sortutako egitura instituzionala oinarritzat hartuta, Legeak adierazten du legearen edukien garapena, hau da, "*helburu, tresna eta proposamen operatiboak*" zehaztea, *Lau Urteko Gida Planaren* bitartez egin behar dela modu planifikatuan, 17. artikuluan jaso den bezala. Gainera, plangintza-dokumentu horrek "*geografiaren eta arloen arabera ezarritako lehentasunak zehazteaz eta esparru horretan ekintza publikoak dituen aurrekontu-beharrak finkatzeaz gain, legearen helburuak hobeto betetzeko aukera emango duten bestelako ekintzak ere definituko dituela*" adierazten da.

Lau Urteko Gida Plana onartzeko metodologiari dagokionez, 11. artikulua honako hau adierazten du: "*Eusko Jaurlaritzak, lau urteko gida-plana onetsi aurretik, urte anitzeko planifikazio estrategikoaren jarraibide nagusiak finkatuko ditu eta Eusko Legebiltzarrari bidaliko dizkio komunikazio gisa, hark osoko bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko*".

Hain zuzen ere, dokumentu honetan orientazio estrategikoa batzuk zehazten dira, eta horietan oinarrituko da 2008-2011ko Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Gida Plan Estrategikoaren behin betiko testua. Hortaz, *Orientazio Orokorrek*, Legeak ezarritako esparruaren barruan, Eusko Jaurlaritzak hurrengo lau urteetan bultzatutako lankidetzaz arautuko duten helburu eta jarraibideak proposatu nahi dituzte.

Estrategia, jarduera eta adierazleak behin betiko zehaztuko dira Eusko Jaurlaritzaz Plana egiten duenean, baina testu honek Planaren eskema, Planaren oinarritzako helburu eta jarraibide batzuk iradokiko ditu, baita lehentasun eta konpromiso zehatzak hautatzeko baliatuko diren irizpideak ere.

Beraz, testu hau lantzerakoan proposamen bikoitza hartu da aintzat. Lehenik eta behin, 2008-2011ko Garapen Lankidetzarako Gida Planaren oinarritzako ildo estrategikoa eta ekonomikoak zehaztea, hau da, 2006ko ekainaren 27ko Eusko Jaurlaritzaren Erabakian aipatutako planaren alde aurreko dokumentua lantzea. Erabaki horren bitartez, gobernu-ekintzaren plangintza-dokumentua onartzen da, 2005-2009ko VIII. Legegintzaldiaren programa betetzeko, eta dokumentu horrek hasierako onarpena behar du Jaurlaritzaren Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Batzorde Delegatuaren aldetik.

Gogoratzekoa da 2005eko martxoaren 10ean Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Garapen Lankidetzarako I. Planaren oinarritzko ildo estrategikoak onartu zituela. Nolanahi ere, legegintzaldi honetan, eta arloa arautzen duen indarreko Legea eskura, edukiak eta Plana onartzeko prozedura lege horrek ezarritakora egokitzeko unea iritsi da.

Beraz, eta bigarrenik, Jaurlaritzak Legebiltzarrari dokumentu hau bidaliko dio, garapenerako lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legearen 11. artikuluan jasotako agindua betez.

Orientazio Orokor horien eskemari dagokionez, 2008-2011ko Garapen Lankidetzarako Gida Plan Estrategikorako proposatutako eskemari jarraituko zaio:

1. Egoeraren diagnostikoa: Planaren zati analitikoa da. Behin betiko aurkezpenean, egungo mundu-testuingurua aurkeztuko da, giza garapen iraunkorraren nazioarteko egoerari eta Iparraren eta Hegoaren arteko harremani dagokienez bereziki. Gainera, garapen-lankidetzaren zeregina aztertuko da, baita azken hamarkadetan izan duen bilakaera eta egungo nazioarteko koiunturan duen inpaktua eta egokitasuna ere. Jarraian, eta aldez aurreko azterketa horretatik abiatuta, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren diagnostikoa egingo da, horren indarguneak eta ahuleziak zehaztuz. Azkenik, eta gure lankidetzaren argazkitik abiatuta, Planaren egokitasuna balioetsiko da, eta inpaktu handiagoa edukitzearen Planean hobetu beharreko alderdiak zehaztuko dira.
2. Plan Operatiboa. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren Helburu Orokorra eta Funtsezko Jarraibideak: Bigarren puntu honetan Planaren Helburu Orokorra zehaztuko da, eta hala lau urterako jardunaren esparrua ezarriko da. Helburu hori lortzerakoan aurrera egiteko, Jarraibide batzuk ezarriko dira, hain zuzen ere Planaren Helburu Espezifikoak. Helburu espezifiko horietan euskal lankidetzaren funtsezko alderdietarako aurreikusitako lorpenak adierazten dira:
 - a. *I. jarraibidea: Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzarako ereduzko esparru teorikoa zehaztea*. Hala, Printzipio Gidari batzuk zehaztuko dira, baita Lankidetzaren Helburua (lankidetzarako estrategia edo jardueraren orokor jomugan eduki behar duena) eta helburu horrekiko koherenteak eta egokiak izango diren lehentasun sektorialak eta zeharkakoak ere.
 - b. *II. jarraibidea: Lankidetzarako estrategia eta jardueren geografia-inpaktua kontzentratzea, modu planifikatu eta koordinatuan*. Selektibitate-printzipioaren arabera, eta irizpide jakin batzuk aintzat hartuta, lehentasuneko herrialde batzuk hautatuko dira, lankidetzaren ahaleginak herrialde horietara bideratzeko. Lurralde horietan epe luzerako estrategiak ezarriko dira, sinergiak bilatuz eta euskal eragileak helburu jakin batzuen inguruan koordinatuz.
 - c. *III. jarraibidea: Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren lehentasuneko eragileei babes instituzionala ematea*. Legean adierazitako lankidetzaren eragileen arabera, koordinazio-neurri zehatzak ezarriko dira. Gainera, eragile jakin batzuk indartzeko estrategia eta jarduerak ezarriko dira, egindako diagnostikoaren arabera.

- d. *IV. jarraibidea: Lankidetza-tresnez osatutako esparru koherentea diseinatzea.* Hartutako lankidetza-ikuspegiaren arabera, tresna jakin batzuk eguneratuko, berdefinituko, sortuko edo desagertuko dira.
 - e. *V. jarraibidea: Ekintza humanitarioari buruzko politika koherentea eta integrala finkatzea, epe luzerako garapena ahalbidetzeko.* Horrekin zera lortu nahi da, garapen-lankidetzarako estrategia eta ekintza humanitarioaren estrategia uztartzea, azken hori beste sektore batzuetara zabalduz, hala nola birgaitzera, arintzera, prestatzera eta hondamendien prebentziora.
 - f. *VI. jarraibidea: Garapenerako Hezkuntzak euskal gizartean eragiten duen Inpaktuan aurrera egitea. Esparru horri lotutako eragileak indartuz, eta koordinaziogune instituzionalak eta sozialak sortuz, euskal biztanleriarengana hurbiltzea lortu nahi da.*
 - g. *VII. Jarraibidea: Eusko Jaurlaritzaren lankidetza-aurrekontua nabarmen handitzea, 2012rako % 0,7 lortzeko.* Atal horretan 2008-2011 aldirako aurrekontu-konpromiso orokorrak ezarriko dira, baita Planak geografia-edo sektore-lehentasan jakin batzuen arabera ezarriko dituen konpromisoak ere.
3. Jarraipen eta Ebaluazio Plana: Jarraipen eta Ebaluazio Planak Plan Operatiboaren helburu eta jarraibideak neurtzeko mekanismoak ezarriko ditu. Taula bat egingo da, eta, bertan, jarraibide bakoitzerako adierazleak ezarriko dira. Adierazle horiek oinarritzat hartuta, Planak bere helburuak betetzen dituen edo ez ebaluatuko da. Jarraibide eta Adierazle Taula horretatik abiatuta, jendaurreko azterketa- eta informazio-sistema zehaztuko da, Plana zertan dagoen jakiteko.

Azkenik, gogoratzekoa da garapenerako lankidetzari buruzko Legearen 18. artikuluan aurreikusten dela Jaurlaritzak urteko planak egin eta onartu beharko dituela, Gida Planaren aurreikuspenak zehazteko Planaren indarreko lau ekitaldietan. 2008ko Urteko Planari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak tramitatuko du 2008-2011ko Gida Planaren dokumentu osoa landu eta onartzearekin batera.

2.- Planaren atalen Oinarri Orientatzaileak

2.1.- EGOERA DIAGNOSTIKOA

2.1.1.- Nazioartea Giza Garapen Iraunkorraren eta Iparren eta Hegoaren arteko harremanetan

Planeta honetan bizi diren gizon-emakumeen, eta bereziki historiaren eta egituren ikuspegitik pobretuta dauden herrialdeetako gizon-emakumeen, garapena da gizateriak aurre egin behar dion funtsezko arazoa. Berrogeita hamar urte luzetan horri buruzko eztabaida izan da nagusi, eta eztabaida horrek jabeen eta desjabetuen arteko aldeak gero eta handiagoak direla berretsi du behin eta berriz, baita Iparren eta Hegoaren arteko harremanen asimetria, eta, azkenik, *ipar* eta *hego* ez-geografikoen sorrera ere, paradigma berriaren adierazgarri. Horren arabera, herrialdeak ez dira neurtzen *Iparrekoak* edo *Hegoaldekoak* izateagatik bakarrik; Iparrean edo Hegoan zenbateraino txertatzen diren ere kontuan hartzen da.

Egungo egoerari buruzko azterketak bide ematen digu baieztatzeko, batetik, aipatutako desorekak sorrarazi zituzten arrazoietan ezer gutxi eragin dela, eta, bestetik, oraindik asko falta dela desoreka horien ondorio kaltegarrienak desagerrarazteko. Horren ondorioz, lortutako emaitzak negatibo samarrak izan direla esan dezakegu, berdintasunaren, aukeren eta askatasunaren ikuspegietatik begiratuta.

Puntu horretan, nabarmentzekoa da azken hamarkadetan aurrerapen adierazgarriak gertatu direla garapen-ikuspegitik begiratuta. Hala, azken lau hamarkadetan mundu pobretuaren batez besteko bizi-itxaropenak hogeitaz urte igo du; haurren heriotza-tasa erdia baino gehiago jaitsi da; azken bi hamarkadetan, Hego herrialdeetako lehen hezkuntzako matrikula-tasa garbia % 13 igo da eta abar, beste datu garrantzitsu batzuen artean.

Alabaina, lorpen horiek gorabehera, hainbat iturburuk berresten dutenez, ezin ukatuzkoa da egungo *nazioarteko ordenaren* egitura eta joera ekonomiko, sozial eta politikoen ez dutela batere laguntzen gehiengo zabalentzako askatasun, aukera eta ahalmenak sortzeko bidean.

Hala, pobrezia sekulako arazoa da oraindik ere. Ia hiru mila milioi lagun bizi dira egunean bi dolar baino diru gutxiagorekin, eta horietatik gutxienez 1.200 milioi muturreko pobrezia-egoeran daude, eguneko dolar bat baino gutxiago dutela. Haurren % 6k ez du urtebete ere betetzen, eta % 8 bost urte baino gutxiago bizi da. Aldi berean, eskola-adinera heltzen diren mutikoen % 9 eta neskatilen % 14 ez da joaten eskolara, lehen hezkuntzan. Bestetik, emakumeek gizonezkoen mendean jarraitzen dute eremu guztietan (ekonomian, gizartean eta politikan). Iparrean zein Hegoan pobrezia *feminizatzen* da, baina desberdintasun-egoera hori are nabariagoa da herrialde pobretuetan: emakumeen % 66 alfabetatuta dago (gizonezkoen % 81); egunean minutu gehiago lan egiten dute (445 eta 388, hurrenez hurren) erdia baino askoz ere gutxiago irabazteko; erabaki politikoen eremu guztietan parte hartzeko aukera gutxiago dituzte; eta, hori gutxi balitz, arau eta ohitura sexista eta matxistek haien eskubide eta askatasunak murriztu egiten dituztela ikusten dute egunetik egunera.

Azkenik, planeta egungo garapen-ereduaren erasoak jasaten ari da: CO2 emisioak hirukoiztu dira azken 40 urteetan, eta horrek zeresana izan du planetaren klima-aldaketan; urtean baso tropikaleko 17 milioi hektarea hondatzen dira eta 4 milioi labore hektarea galtzen dira basamortutze-prozesuen eraginez; ozono-geruza agortzen ari da, eta horrek oso ondorio larriak dakartza espezie guztientzat; eta ura, airea eta lurrak kutsatzen dituzten hondakinen kopuru itzelak sortzen dira.

Azken batean, adierazle horiek guztiek honako ondorio honetara garamatzate: oro har, zulo handia dago pobretuen eta aberastuen artean, Iparraren eta Hegoaren artean, *iparren* eta *hegoen* artean; eta alde horiek, gainera, hazten eta hazten jarraitzen dute etengabe. Horri dagokionez, ezin dugu ahaztu XX. mendean, errentaren munduko banaketa are desorekatuago bihurtu dela: gaur egungo desorekak historian izan diren handienak direla berresten dute datu kuantitatibo eta kualitatiboek. A. Maddison-en txostenetan ageri denez, *Gini koefizienteak* —desoreka-mailaren adierazle ohikoenak— horixe adierazten du, 1990-1998 aldian 0,393tik 0,496ra hazi baita (0=berdintasun handiena, 1=desoreka handiena); aldiz, azkeneko berrogei urtetan, herrialde aberatsenen diru-sarrera berrogei aldiz handitu da, hogeit hamar herrialde pobreenena baino hogeita hamazazpi aldiz handiagoa izanik.

Hain zuzen ere, hemen aurkezten dugun egoerak harreman zuzena dauka murgilduta gauden globalizazio-fasearekin. Ekonomia eta politika nazioartekotzeko prozesua areagotu egin da azken hamarkadetan; horren eraginez, fluxuen munduko trukea nabarmen handitu da, eta ekonomiaren, politikaren, gizartearen eta kulturaren arloetako eragile eta herrialdeen elkarrekiko mendekotasunak ere gora egin du.

Lau esfera horietan —ekonomian, politikan, gizartean eta kulturaren— eragin ditu prozesuak eraldatze nabarmenenak: Iparraren eta Hegoaren arteko desberdintasunak handitu ditu, liberalizazioaren eta erregulaziorik ezaren ondorioak konpentsatuko lituzkeen neurri zuzentzaileak ez dagoelako; estatuen ekiteko eta birbanatzeko ahalmena murriztu du, finantza- eta merkataritza-erakunde multilateralen eta enpresa transnazionalen botere geroz eta handiagoaren aldean; pobrezia eta kalteberatasuna handitu ditu, gizarte-zerbitzu publikoak murriztu baitira; eta gure planetaren kultura-aniztasuna murriztu du, kultura —hitzaren zentzurik zabalenean, besteekin eta ingurunearekin harremanetan jartzeko moduak barne— homogeneizatu eta merkantilizatu baita.

Azken batean, mendetasun multiple hori da —gogora dezagun, mendetasun ekonomikoa, politikoa, soziala eta kulturala— garapeneko teoria eta prozesu orok aurre egin behar diona. Lankidetzaren politikak, beraz, garapen-estrategien barruko tresna den aldetik, garapenaren ikusmolde integralean eragin behar du eta egungo nazioarte-testuingurura egokitu, kontuan hartzeko moduko inpaktua eduki nahi badu.

2.1.2.- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Lankidetzaren ikuspegia: Planaren egokitasuna.

Lankidetzaren eta garapenaren kontzeptuek hainbat eraldatze izan dituzte azken hamarkadetan. 90eko hamarkadara arte, garapena hazkunde ekonomikoari lotzen zitzaion. Lankidetzaren ekuazio horretan oinarritzen zen, eta lortu nahi ziren helburuetara egokitzen zen. Hala, 70eko hamarkadara arte lankidetzaren ekonomia-lankidetzarako

beste tresna bat zela hartzen zen aintzat, Atzerriko Zuzeneko Inbertsioari eta mailegu publiko eta pribatuei gaineratzeko beste tresna bat, alegia. Hamarkada horretatik aurrera, lankidetzaren gizarte-zerbitzuetara ere bideratu zen, gizarte-zerbitzuek produktibitatean eta biztanleriaren prestakuntzan zuzenean eragiten dutelako arrazoibidea oinarritzat hartuta.

Alabaina, zenbaitek lankidetzaren zeregina kolokan jartzen zuten, Hegoaren garapena galarazten zuten benetako egiturazko arazoei aurre egin beharrean, unean uneko arazo koitunturalak bakarrik konpontzen ziharduela leporatuta.

90eko hamarkadan giza garapenaren paradigma sortu zen. Horren arabera, garapena ekonomia-hazkundea da, baina ez hori bakarrik, ekonomia-hazkundea bezain garrantzitsuak diren beste zenbait alderdi ere biltzen baititu: gizartea, politika, kultura, generoa, iraunkortasun ekologikoa eta abar. Giza Garapenaren helburu nagusia ez da datu makroekonomikoetan aurrera egitea; aitzitik, planetako gizon-emakumeen ahalmen, askatasun eta aukerak handitzea du erronka nagusizat, herrialdeak ez baizik eta pertsonak jarriz funtsezko subjektutzat.

Ikuspegi berri horrek honako ondorio hauek ditu lankidetzarentzat:

- Lankidetzak, dimentsio ekonomikotik haratago, garapen-kontzeptuak berekin dakarren dimentsio multzoa bildu behar du, aldagai sozialak, politikoak, kulturalak, psikologikoak eta abar integratzeko.
- Herri bakoitzaren prozesuak eta aniztasunaren defentsa hartu behar ditu funtsezko abiapuntutzat, betiere giza eskubide unibertsalen esparru globalaren barruan eta askatasunak indartu behar direla aintzat hartuta.
- Abiarazitako ekintzen iraunkortasun ekologikoak ezarritako mugetan oinarritu behar dute ekintza guztiek, garapen iraunkorreko eredu orokorretik abiatuta.
- Gizakia da abiapuntua eta helmuga; hortaz, talde eta kolektibo kalteberenek izan behar dute garapenaren lehentasunezko helburu. Garapen-prozesuetako gizarte parte-hartzeak izan behar du ekintza ororen abiapuntu eta helburu.

Hala, lankidetzak pertsona guztien —bereziki talde kalteberen— ahalmen eta askatasunak gara daitezen galarazten duten arazoietan eragiten du zuzenean, ekologia-arloan iraunkorrak diren garapen-alternatibak sortuz. Alternatiba horiek, ekonomia-pobrezia ez ezik, gainerako garapen-dimentsioak ere hartu behar dituzte aintzat, eta gainera pertsona eta herriei eman behar diete lehentasuna, pertsona eta herriek beren garapenean parte har dezaten, garapenaren helburu soilak izan beharrean.

Lankidetzaren garrantzi handiagoko beste garapen-tresna batzuekin —merkataritzaren, finantzen eta kulturaren arloetako neurriekin— osatu behar da, baina bidezko mundu batera iristeko beharrezko eraldatzeen osagarri behar du.

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren ere aurrera egin du lankidetzaren kontzeptua eraldatzeko bide horretan, eta pixkana-pixkana pobrezia aurkako borrokarantz

bideratu da giza garapenaren esparruan. Horren haritik, gure lankidetzaren indarguneak honako hauek direla esan dezakegu:

- Politika publikoa da, 1985ean lehen lankidetz-partida sortu zenez geroztik gaur egun arte finkatu dena, horretarako fondoak geroz eta azkarrago igo baitira etengabe. Gainera, egitura instituzional eta sozialak finkatu dira, sektorean esperientzia handia duten eragileei esker. Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legea argitaratzea dugu finkatze horren behin betiko adierazlea. Izan ere, Legeak aurrerapena dakar berekin, nola lankidetzaren eraldatzailearen ereduari, hala lankidetzaren arautzen duten erakunde publikoak hobetzeari dagokienez.
- Lankidetzaren mota hori gizarte-arlokoa da bereziki, eta EAEko Garapenerako Gobernuaren Kanpoko Erakundeek (GGKE) eta beste gizarte-eragile batzuek esku-hartze nabaria dute hartan, eta ez soilik ekintzak gidatzeari eta ekimenak kudeatzeari dagokienez.
- Lankidetzak pobrezia aurkako konpromiso argia eta zehatza adierazi du, Lege horren 3.1 artikuluan jaso den bezala. Hitzez hitz, honela dio: *"garapenerako lankidetzaren ekimen guztiek elkartzaren ez-interesatuaren printzipioa beteko dute"*. Hortaz, merkataritza- eta estrategia-helburuak gure lankidetzatik kanpo geratzen dira, sektore jakin batzuei —oinarrizko gizarte-premiei edo tokiko ekonomia-garapenerari— lehentasuna ematen baitiegu, biztanleria-sektore kalteberenetan eraginez bereziki.
- Lankidetzaren mota horren arabera, Giza Garapena paradigma estrategikoa da. Hala, gizakia garapenaren funtsezko subjektua izatea bermatzen du, honako honetatik ondorioztatzen denez: *"garapenerako lankidetzaren oinarria gizakiaren askatasuna eta duintasuna aitortzea da, hala alderdi pertsonalean nola kolektiboan, hura baita garapenerako lankidetzaren protagonista, hartzaile eta azkenengo kudeatzaile"* (Legearen 3.4. artikulua). Bestetik, honako hau ere bermatzen du Legeak: *"garapenerako lankidetzarako jarduerak berriaz errespetatu eta bultzatuko dituzte tokiko komunitateen, gutxiengoen eta herrien kultura, idiosinkrasia, gizarte eta administrazioa antolatzearen egiturak eta erabakiak hartzeko berezko prozesuak, betiere giza eskubideen, ingurumenaren eta nazioarteko hitzarmenetan hartutako konpromisoen aurkakoak ez badira"* (Legearen 3.2. artikulua).
- Lankidetzaren egonkorra da tresna eta lehentasun sektorial eta geografikoei dagokienez. Hala, ibilbide luzeko zenbait tresna daude, hala nola GLSFren garapenerako lankidetzaren eta hezkuntza-proiektuen deialdia, laguntza humanitarioko proiektuen deialdia, edo Nazio Batuen erakundeetan parte hartzeko beka; bestetik, sektore jakin batzuei (oinarrizko premiei) eman zaie lehentasuna, baina baita euskal herriak konpartitu beharreko ahalmen espezifikoak ezarria duen sektoreei ere, hala nola tokiko ekonomia-garapenerari, tokiko autonomia-prozesuei eta kultura-aniztasuna babesteari. Amerikako kontinentearekiko (Erdialdeko Amerikarekiko eta Karibereki, bereziki) harreman sendoak ezarri dira, baina Afrikari eta estatuek gabeko herrialdeei ere (Palestinari edo Saharari, esaterako) gero eta laguntza handiagoa eskaintzen zaie.

Nolanahi ere, ahulezia batzuk ere ageri dira, eta 2008-2011ko Gida Plan Estrategikoak indargune bihurtu nahi ditu ahulezia horiek:

- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren jardunak, eredu egonkorren arabera politikara finkatuari jarraitu arren, ez dira ongi oinarritutako esparru koherentean oinarritu, hau da, jardun horiek ezartzerakoan haien helburu espezifikoak eta lehentasun sektorialak, zeharkakoak eta geografikoak ez dira behar bezala argitu alde aurretik planifikatutako irizpideak hautatzearen ondorioz.
- Lankidetzaren egitura instituzional eta sozialek, funtsezko eragileek (Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak, esaterako) eta GGKEek, beren ahalmenetan pixkana-pixkana aurrera egin badute ere, oraindik ere gabezia nabariak dituzte zenbait alorretan (giza baliabideetan, ikuspegi estrategikoan, prestakuntzan eta abar).
- Lankidetzaren tresnak sendoak eta askotarikoak dira, baina berriz aztertu behar dira, proposaturiko erreferentzia-esparruari egokitu zaizkion forma berriak bilatzeko, eta planteatutako helburuak lortzea errazteko.
- Lankidetzaren ekintzen inpaktu geografikoak sakabanatzea saihestu behar du, laguntza kontzentratuz helburu komunak inguruko baterako plangintzetan oinarrituta.
- Funtsezko osagarrien (Ekintza Humanitarioa eta Garapenerako Hezkuntza, esaterako) garapen teorikoa eta praktikoa indartu behar da.
- Lankidetzarako diru-kopuruak handitu behar dira, 2012. urtean Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu osoaren % 0,7ko helburua lortzeko.

Aldez aurretik adierazi dugun bezala, ahulezia horiek indargune bihurtu nahi dira Planaren esparruan, jarraian Plan Operatiboari dagokion bigarren atalean aurkeztuko dugun bezala.

Azkenik, eta atal honi amaiera eman aurretik, alde aurretik aipatu dugun Legea ez ezik (Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legea, Euskadin arlo hori berariaz arautzen duena), beste bi lege ere aipatu behar dira, aurreko lege horretan eragiten baitute: batetik, boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legea, boluntarioak lankidetzaren esparruan bereziki sustraituta baitaude gizarte-arloan, eta, bestetik, emakume eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, lankidetzaren ekintza guztietarako zeharkako ardatza delako, eta, gainera, ekintza horien barneko ildo sektorial espezifiko bati dagokiolako.

2.2.- PLAN OPERATIBOA

2.2.1.- Planaren Helburu Orokorra

Honako Helburu Orokor hau proposatu da:

Identitate eraldatzailea, koherentea, koordinatua eta kalitatezkoa izango duen lankidetzaren politika garatzea, egiturazko pobrezia ezabatzean oinarrituta tokiko garapen-estrategiei lehentasunezko laguntza emanez, baina tokiko eta munduko esparruetara ere zabalduz.

Hortaz, helburu horren barnean honako hauek hartzen dira:


- Dauden desberdintasunak arindu ez ezik, pertsona eta herrien bidezko garapena galarazten duten egiturei aurre egin nahi dien eta egitura horiek eraldatu nahi dituen lankidetzaren ikuspegia. Horregatik hain zuzen, Nazio Batuek 2000an ezarritako Milurtekorako 8 Helburuak bere egiten ditu (osasuna, hezkuntza, generoa eta garapenaren aldeko aliantzak), baina helburu horiek gainditu egiten ditu, aurrera egiten baitu nazioarteko esparruan desoreka-egoera horiek sorrarazten dituzten arrazoietan sakontzeko bidean.
- Kalitatezko politika bat ezarritako helburuetan eragiten duen inpaktuari dagokionez, baina baita haren lehentasunezko eragileek estrategiaren, gizartearen, finantzen eta kudeaketaren arloetan dituzten ahalmenei dagokienez ere. Gainera, euskal eragile instituzional eta sozial guztiekiko koordinazioa etengabe hobetzeko helburua da, eta euskal lankidetzaren kalitate globalean izango du eragina.
- Lankidetzarako oinarritzko helburua, pobrezia ezabatzean soilik oinarritzen dena. Kontzeptu hori modu dinamikoan (arrazoi historikoen eta egiturazko arrazoen eraginez) eta integralean (ahalmen ekonomiko, sozial, kultural eta politikoei dagokien pobrezia) ulertu behar da.
- Lehentasunezko jardun-esparru bat, tokikoa, garapen integraleko eta pobrezia-aren aurkako borrokarako estrategia sendoak eraikitzean tokikoak garrantzi handia duelako, baina, estatu- eta mundu-arloetatik bereizi beharrean, arlo horietan ezin hobeto txertatuz, lankidetzaren ekintzaren tipologiaren arabera.

2.2.1.1.- I. jarraibidea: Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzarako ereduazko esparru teorikoa zehaztea.

Ereduazko esparru teorikoak Planaren oinarri diren funtsezko kontzeptuak zehazten ditu —garapena, pobrezia, tokiko esparrua— eta kontzeptu horiek biltzen dituzten dimentsio sektorialak eta zeharkakoak ezarriko ditu, baita Eusko Jaurlaritzaren esparruan kokatuko den lankidetzaren ekintza oro arautu behar duten printzipioak ere.

Hain zuzen ere, jarraian aurkezten dugun koadroak alderdi horiek guztiak biltzen ditu:

- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren ikuspegia zehazten duten printzipio arautzaileak.
- Lankidetzaren ekintza orok Planaren esparruan eduki behar duen helburua.
- Ahalmenen pobrezia kontzeptua osatzen duten arlo sektorialak eta zeharkako ildoak.



Ereduzko esparru teoriko hori koherentea da, eta Legean ezarritako Garapen Lankidetzarako Helburuak (4. artikulua) eta Lehentasun Sektorialak (5. artikulua) antolatzen ditu.

2.2.1.2.- II. jarraibidea: Lankidetzarako estrategia eta jardueren geografia-inpaktua kontzentratzea, modu planifikatu eta koordinatuan.

Geografiari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzak Amerikako kontinenteko herrialdeekiko oso harreman sendoa erakutsi du, Afrikako herrialde eta herriekiko harremanak gero eta sarriagoak direla ahaztu gabe.

Alabaina, jardun-eredu horiek ez dira irizpide argietan oinarrituriko aldez aurreko plangintzaren isla, euskal lankidetzaren eragile guztiek denborarekin ezarri dituzten aliantzen emaitza baizik.

Horren ondorioz, batetik, kontzentrazio naturala gertatu da, eta bestetik, hainbat proiektu eta ekintza sakabanatu dira hogeita hamar herrialde baino gehiagotan.

Hain zuzen ere, une honetan ikusi da gure lankidetzaren geografiaren arabera planifikatu eta antolatu beharra, inpaktu handiagoa eta sakonagoa izan dezan. *Selektibitate-printzipioa* aplikatuz, tresna mugatu bat eskura (Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren) ezinezkoa da oso helburu zabala lortzea (herri eta pertsona pobretuen garapena), eta horregatik herrialde eta lurralde batzuk hautatu behar dira, haietan kalitate handiagoarekin eragiteko.

Hala, Plana behin betiko idazteko honako proposamen hauei jarraitu behar zaie:

1. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren % 90 lehentasunezko 15-20 herrialdetan kontzentratzea.
2. Planaren lehentasunezko herrialde bakoitzean herrialde-estrategiak pixkana-pixkana garatzea, sinergiak sorrarazteko eta garapen-helburu komunen inguruko koordinazioa ahalbidetzeko.

Lehentasunezko herrialdeak —eta ondorioz, herrialde-estrategia duten herrialdeak— hautatzeko, honako irizpide hauek aplikatuko dira, garapenerako lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legean ezarritakoaren arabera:

- Nazioartean onartutako adierazleen arabera pobrezia-egoeran dauden herrialdeak (Legearen 6. artikulua leheneren paragrafoa). Bereziki, eta irizpide horri jarraituz, Afrikan egoera bereziki kalteberan dauden herrialde eta herriei emango zaie lehentasuna.
- Euskadik harreman bereziak ezarriak dituen herri eta herrialde pobretuak, hau da, euskal gizartearekin eta euskal erakundeekin lankidetzaren esperientzia handiena izan dutenak (6.c artikulua).
- Gatazkan eta larrialdi humanitarioko egoeran dauden eremuak, edo giza eskubideak larriki hausten direnak (6.a eta 6.b artikulua).
- Euskadira datozen etorkin talde handien jatorrizko eremuei dagozkien herri eta herrialdeak (6.d artikulua).

2.2.1.3.- III. jarraibidea: *Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren lehentasunezko eragileei babes instituzionala ematea.*

Legearen 8. eta 9. artikuluen arabera, honako hauek dira euskal lankidetzaren eragileak:

- a) Euskal administrazio publikoak eta horiei loturiko gainerako entitateak.
- b) Garapenerako gobernu kanpoko erakundeak (GGKE).
- c) Lege honen printzipio eta helburuen barruan garapen-lankidetzarako ekintzak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateak, hala nola unibertsitateak, erakunde sindikalak edo gainerako gizarte-erakundeak.

Bestetik, Legearen 10. artikuluan Garapen Lankidetzarako Eragileen Erregistroa abian jartzea aipatzen da, eragile horien jardunaren jarraipena egitea ahalbidetuko duen kudeaketa-tresna izango den aldetik.

Eremu horretan, 2008-2011ko Gida Plan Estrategikoak honako bi helburu hauek planteatzen ditu:

1. *Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren funtsezko eragileak —hala nola Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza eta GGKEak— indartzea.*

Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari dagokionez, Legean jasotakoaren arabera *Garapenerako Euskal Agentzia* sortzea planteatu da. Erakunde berri horrek Eusko Jaurlaritzan lankidetzara bideratutako giza baliabideak indartu eta handituko ditu, kalitate handiagoko lana garatzeko helburuarekin.

Euskal lankidetzaren lehentasunezko eragile diren GGKEei dagokienez, Planaren bitartez indartu nahi dira, haien ahalmenak handituz:

- Planifikatzeko ahalmena indartuz.
- Genero-berdintasuna barneratuz eta sendotuz jardunaren esparru guztietan.
- Ebaluazioari garrantzi berezia emanez, proiektu eta programen bizi-zikloaren funtsezko osagarria den aldetik.

2. *Lankidetzarako euskal entitate publiko edo sozial guztiekiko koordinazioa indartzea.*

Horren haritik, honako ekintza hauek hartzen dira kontuan:

- Garapen Lankidetzarako Euskal Kontseilua sortzea.
- Garapen Lankidetzarako Erakunde Arteko Batzordea sortzea.
- Koordinazioa indartzea, Herrialde-estrategien baterako parte-hartzean oinarrituta.

2.2.1.4.- IV. jarraibidea: Lankidetzaren tresnez osatutako esparru koherentea diseinatzea.

Jarraibide honen bitartez Plan honen ikuspegiarekin koherentea izango den lankidetzaren tresna multzoa ezarri nahi da, epe luzerako garapen-prozesuetarako laguntza eta helburu komunitan oinarritutako plangintzaren eta koordinazioaren bilaketan oinarrituta.

Une honetan, honako tresna hauek osatzen dute indarreko sistema:

- Garapen Lankidetzarako proiektuak; gehienez 600.000 euroko finantziazioa dute, eta 24 hilabeteko iraupena.
- Garapen Lankidetzarako Programak; 600.000 €-tik 1.200.000 €-ra bitarteko finantziazioa dute, eta 24-36 hilabeteko iraupena.
- Garapenerako Hezkuntzari buruzko Proiektuak, euskal gizartearen sentsibilizazioari eta garapenerako ikerketari dagozkien osagarriak barne.
- Ekintza Humanitarioko proiektuak, larrialdiko laguntza ere barne hartuta.
- Eusko Jaurlaritzaren eta Iparreko eta Hegoko entitateen arteko baterako finantziazioko zuzeneko hitzarmenak.
- Euskal Lankideen Programa. Finantza-laguntza edukitzeko aukera eskaintzen du, herrialde pobretuetako entitateen ahalmenak indartzeko.
- Euskaldunak Nazio Batuen Erakundeetan Sartzeko Bekei buruzko Programa.
- Euskadiko Gazteak Lankidetzan Programa. 3 hilabetez lehen lankidetzaperientzia edukitzeko aukera eskaintzen du.

Jarraibide horren bitartez, beraz, tresna-esparru hori sendotu nahi da, tresnen definizioa indartuz. Gainera, plangintzarekin zerikusia duten tresna berriak aintzat hartzea proposatzen da:

- Urteko Plana. 18. artikulua ezartzen duenez, *"bertan, tarte horretan Eusko Jaurlaritzak aurrera eramango dituen jardueren programa jasoko da, baita esparru horretarako gordetako aurrekontua aplikatzeko ildo orokorrak ere"*.
- Herrialde-estrategiak; horietan, herrialde edo lurralde espezifiko bat garatzeko lehentasun eta helburuak planifikatuko dira modu koordinatuan, betiere Planak hautatutako lehentasunezko herrialdeen barruan.

2.2.1.5.- V. jarraibidea: Giza ekintzaren aldeko politika koherentea finkatzea, epe luzerako garapena ahalbidetzeko.

Une honetan Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin garatutako ekintza humanitarioak zenbait gabezia ageri ditu, eta Plan honek gabezia horiek guztiak gainditu nahi ditu.

- Oro har, *larrialdiei soilik* ematen zaie garrantzia, ekintza humanitarioaren funtsezko beste alderdi batzuk —hala nola birgaitzea, arintzea, prestatzea eta prebentzioa— alde batera utzita.
- Ekintza humanitarioko ekintzen eta garapen-lankidetzarako ekintzen arteko lotura txikia da.
- Ekintza humanitarioko ekintzak oso sakabanatuta daude.

Jarraibide horren helburu nagusia *Ekintza Humanitarioko Laguntzei buruzko Dekretua* argitaratzea da. Honako alderdi hauek zehaztu behar ditu Dekretu horrek:

- Ekintza Humanitariorako ereduzko esparru teorikoa: Helburu Espezifikoa bat, eta lehentasunezko ildo sektorial eta zeharkako batzuk, printzipio humanitario komun batzuk oinarritzat hartuta.
- Ekintza Humanitarioko tresna-sistema bat, larrialdi-proiektuei laguntzeko tresna bat eta ekintza humanitarioko (zentzu zabalean) estrategiei laguntzeko beste tresna bat bateragarri egingo dituen, birgaitzea, prestatzea, arintzea eta prebentzioa barne. Hala, humanitarioa eta garapen-lankidetzaren organikoki lotzeko aukera izango da.
- Abian jarri nahi diren esperientzia estrategikoak garatzea ahalbidetuko duen finantziario-ildoak finkatzea.

2.2.1.6.- VI. jarraibidea: *Garapenerako Hezkuntzak euskal gizartean eragiten duen Inpaktuan aurrera egitea.*

Garapenerako Hezkuntza —sentsibilizazioa eta ikerketa barne— 2008-2011ko Gida Plan Estrategikoaren funtsezko osagarria da, erantzukidetasun-printzipioaren babesetik abiatuta.

Printzipio horren arabera, herrialde pobretuen egoera guztioi dagokigun gaia da, eta guztiok ere gure gain hartu behar dugu horren gaineko erantzukizuna. Iparreko ekintzek (kontsumoak, ingurumenak, deslokalizazioak eta abar) Hegoan eragiten dute, eta kolonizazio-historia berriak herrialde horien garapen-prozesuak zapuztu ditu. Azken batean, garapena arazo globala da, eta herritar guztiok hartzen gaitu eraginpean.

Horren ondorioz, eta Iparra eta Hegoa elkarrengana hurbiltzeko, eta egungo garapenereduak sorrarazitako desberdintasunekiko kontzientziatzeko, behar-beharrezkoa da osagarri horri dagokionez ahalizazio berezia egitea.

Planak garapen-hezkuntzarako ekintzen inpaktua hobetu nahi du, honako ildo hauen bitartez:

- Garapenerako hezkuntzan jarduten duten entitateei instituzionalki indartzea, haien ebaluazio-ahalmena hobetuz eta boluntarioak prestatuz.
- Erakunde arteko, eta erakundeen eta lankidetzaren eragileen arteko koordinazioarekin ezartzea.
- Finantziario-ildo koherentea finkatzea, Garapenerako Hezkuntzaren garrantziarekiko koherentzian.

2.2.1.7.- VII. jarraibidea: *Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren aurrekontua nabarmen handitzea, 2012rako 0,7 lortzeko.*

1/2007 Legearen funtsezko helburua garapen-lankidetzaren alderdi nagusiak (ez aurrekontuei dagozkienak) arautzea bada ere, aurreikuspen bat ere bildu du garapen-lankidetzak Aurrekontu Orokorretan izan behar duen diru-zuzkidurari buruz. Lege horren bigarren xedapen gehigarriak, "*Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen-lankidetzarako baliabideak*" izenekoak, honako hau adierazten du:


"Nahiz eta aurrera egin behar den, gainerako herri-administrazioekin batera, produktu gordinaren % 0,7 betetzeko bidean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak arian-arian gehituko ditu garapen-lankidetzarako eta nazioarteko elkartasunerako ekarpenak, 2012ko aurrekontu orokorretan ezarritako gastu osoaren % 0,7 izan daitezen".

Kontuan hartu behar da gaur egun arte aplikatu den aurrekontu-erreferentzia *aurrekontu operatiboaren* % 0,7 izan dela; erreferentzia hori argi eta garbi gainditzen da orain, Legeak Aurrekontu Orokorretan esleitutako *guztizko gastua* aipatzen baitu, eta, dakigun bezala, gastu horren zenbatekoa askoz ere handiagoa da.

Ondorengo koadroan ikus dezakegu 2007-2011 denboraldirako aurrekontu-igoeran bilakaera bat egon daitekeela. Berriz ere esan behar dugu, 2007. urterakoak izan ezik, ondorengo ekitaldietarako zenbatekoak aurreikuspenak baino ez direla.

Urtea	Aurrekontu-zuzkidura
2007	39.000.000 €
2008	45.000.000 €
2009	51.000.000 €
2010	57.000.000 €
2011	62.000.000 €

Garapen-lankidetzari buruzko aurreko aurrekontu-ibilbideari datozen urteetako aurreikuspenak gehitzen badizkiogu, guztizko bilakaera lortzen dugu. Beheko koadroan ikus daiteke bilakaera hori.



2.3.- JARRAIPEN ETA EBALUAZIO PLANA

Plan Operatiboa Helburu Orokor baten inguruan antolatu da; zazpi jarraibide edo helburu espezifiko ezarri izan dira Helburu Orokor hori. Gainera, jarraibide bakoitzak zenbait azpijarraibide biltzen ditu.

Planaren logika horrek Planaren jarraipena errazten du, baita Planaren bilakaeraren etengabeko ebaluazioa ere. Hala, Jarraibide eta Adierazle Taula bat ezarriko da. Jarraibide eta azpijarraibide bakoitzeko adierazle kualitatibo eta/edo kuantitatibo bat ezarriko da gutxienez, Planaren onartutako konpromisoen ondorioz. Taula horretatik abiatuta, Planaren jarraipen- eta ebaluazio-sistema ezarriko da.

Planaren ebaluazioan parte hartu behar duten subjektuei dagokienez, garapenerako lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legean ezarritakoa hartu behar da kontuan. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak plan guztien ebaluazioak egitea aurreikusten du, Sail eskudunaren bitartez, baita garapen-lankidetzarako urteko ebaluazio-txostenak egitea ere.

Lege horren III. Kapituluaren garapenerako euskal lankidetzaren antolamendua ezarri da, eta horren arabera, Garapen Lankidetzarako Euskal Kontseiluak eta Garapen Lankidetzarako Erakunde Arteko Batzordeak ere parte hartuko dute ebaluazio-prozesuetan.

Legearen 26. artikuluan, garapen-lankidetzarako politikaren, planen eta tresnen ebaluazioa egiten da, eta artikulua hori ere kontuan hartzekoa da. Horretarako, Planaren indarraldian eta Plana amaitutakoan hainbat ekintza jarriko dira abian euskal lankidetzaren publikoaren inpaktua ezagutzeko, eta eremu geografiko bakoitzeko garapen-

lankidetzarako sistema orokorrarekiko koordinazioa eta osagarritasuna ebaluatzeko. Horretarako, aldi horretan *euskal lankidetzaren publikoaren mapa* lantzea aurreikusi da, euskal lankidetzak garapen-lankidetzarako politika gauzatzen duten erakundeen bitartez presentzia duen herrialdeetan.